

Donostian eta Zarautzen salgai dauden etxebizitzak historiako gehieneko preziora iritsi dira

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 12/01/2024

Donostiaren kasuan, metro karratuaren batez besteko prezioa %47 igo da eta Zarautzeko kasuan %25,5 azken bederatzi urteetan.

Fotocasa Higiezinaren Indizeak egindako 'Etxebizitza salgai 2023an' txostena publiko egin du duela gutxi. Datu hauen arabera Donostia eta Zarautz metro karratuko 6.000 euroko muga gainditu dute bigarren eskuko etxebizitzak, historiako gehieneko preziora iritsiz. Donostian metro karratua 6.120 eurora igo da eta Zarautzen, 6.029 eurora. Oso prezio altua da kontuan hartuta Espainiar Estatuko bigarren eskuko etxebizitzaren batez besteko prezioa 2.203 euro/ m² dela.

Bigarren eskuko etxebizitza hauen garestitzea batez ere azken 10 urtetan izan du gorakada. Donostiaren kasuan, 2014an batez besteko prezioa 4.161 euro/m² izan zen, eta 2023an 6.120 euro/m² da. Beraz, prezioa %47 igo da. Zarautzeko udalerrian %25,5 garestitu da azken bederatzi urteetan. Honek suposatzen du Espainiar Estatuko bigarren eta hirugarren udalerri garestienak izatea bi hauek.

Era berean, kolektibo askoren emantzipazioa gero eta zailagoa da; izan ere, hiri honetan alokairuan dauden etxebizitzaren metro koadroa, 2023ko abenduan, 16,8 eurokoa da, Idealista atariak argitaratuta dituen datuen arabera.

<https://eh.lahaine.org/donostian-eta-zarautzen-salgai-dauden>